

Txostena

Informe

**2015eko maiatzaren 24ko
Batzar Nagusietarako
Hauteskundeak.
Hauteskunde-kontabilitatea**

**Elecciones a
Juntas Generales
24 de mayo de 2015.
Contabilidad Electoral**



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
SARRERA.....	6
I. ONDORIOAK.....	9
I.1 LANAREN ZABALARI MUGAK	9
I.2 LEGERIA BETETZEA.....	9
I.3 DIRU-LAGUNTZA PROPOSAMENA.....	9
II. GOMENDIOAK.....	11
III. DIRU-LAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGAKETA.....	12
III.1 HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ETA GEHIENEZKO DIRU-LAGUNTZA.....	12
III.2 GASTUEN GEHIENEZKO MUGAKETA.....	13
III.3 JASOTAKO AURRERAKINAK	14
IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK.....	16
IV.1 EUZKO ALDERDI JELTZALEA	16
IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU	17
IV.3 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE).....	19
IV.4 ALDERDI POPULARRA	20
IV.5 PODEMOS.....	21
IV.6 IRABAZI.....	22



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS	23
INTRODUCCIÓN.....	25
I. CONCLUSIONES	28
I.1 LIMITACIONES AL ALCANCE DEL TRABAJO.....	28
I.2 CUMPLIMIENTO DE LA LEGISLACIÓN.....	28
I.3 PROPUESTA DE SUBVENCIÓN	28
II. RECOMENDACIONES.....	30
III. SUBVENCIONES Y LÍMITE DE GASTOS.....	31
III.1 RESULTADOS ELECTORALES Y SUBVENCIÓN MÁXIMA	31
III.2 LÍMITE MÁXIMO DE GASTOS	32
III.3 ANTICIPOS RECIBIDOS.....	33
IV. CUENTAS ELECTORALES	35
IV.1 EUZKO ALDERDI JELTZALEA - PARTIDO NACIONALISTA VASCO.....	35
IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU	36
IV.3 PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)	38
IV.4 PARTIDO POPULAR	39
IV.5 PODEMOS.....	40
IV.6 IRABAZI.....	41

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 26a
Vitoria-Gasteiz, a 26 de noviembre de 2015



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
BNHL	Martxoaren 27ko 1/1987 Legea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietako hauteskunderi buruzkoa.
HAOLO	5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunderen Arau Orokorrei buruzkoa



SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako 2015eko maiatzaren 24an egindako azken hauteskundeetan jarlekua eskuratu zuten talde politikoen sarrera eta gastuen kontabilitatea aztertu du.

Fiskalizazioak indarreko arautegiari jarraiki, honako alderdi hauek egiaztatzea izan du helburu:

1. Kontabilitatea ekainaren 19ko Hauteskundeen Arau Orokorren Lege Organikoaren - HAOLO 121.2 eta 133.1 artikuluetan aurreikusitako epean eta ezarritako printzipioen arabera aurkeztu da.
2. Alderdi politikoei justifikatutako kobrantza eta ordainketa guztiak Hauteskunde Batzordeari jakinarazitako kontu korronteen bitartez egin dira eta Hauteskundeen Arau Orokorren Lege Organikoaren 124 eta 125.1 artikuluetan jasotako zehaztapenen arabera.
3. Pertsona fisiko edo juridikoengandik eratorritako ekarpenak egoki identifikatuak daude Hauteskundeen Arau Orokorren Lege Organikoaren 126. artikuluan eskatutakoaren arabera eta Lege bereko 129. artikuluko mugaketak betetzen dituzte.
4. Hauteskunde-kontu korronteetara ondoko erakunde hauetatik fondoak ekartzeko debekua errespetatu da: zeinahi administrazio edo erakunde publikotatik; erakunde autonomo edo estatuaz besteko entitateetatik; jabetza Estatuak, autonomia erkidegoek, probintziek edo udalek duten sektore publikoko enpresetatik; ekonomia mistoa duten enpresetatik; baita, indarreko kontratu bitartez, administrazio publikoren batentzat zerbitzu eman edo hornidura edo lanak egiten dituzten enpresetatik (Hauteskundeen Arau Orokorren Lege Organikoaren 128. artikulua).
5. Foru Aldundiek alderdi politikoei, federazioari eta koalizioari emandako aurrerakinen zenbatekoak Hauteskundeen Arau Orokorren Lege Organikoaren 127 bis eta 133.4 artikuluetan finkatutako gehiengo mugak betetzen ditu.
6. Egindako gastuak arautegiak zehaztutako kontzepturen bati dagozkio, hauteskundeak deitu eta hautetsien izendapena gauzatu bitarteko aldirian egin dira eta euskarrituak daude, kontularitza, merkataritza eta fiskalaritzako printzipio eta arauak agintzen dituzten gutxieneko betekizunak gordetzen dituztela (Hauteskundeen Arau Orokorren Lege Organikoaren 130. artikulua).
7. Gastu guztiak hauteskunde kanpaina amaitu eta ondorengo 90 egunetan zehar ordaindu dituzte (Hauteskundeen Arau Orokorren Lege Organikoaren 125.3 artikulua).



8. Hauteskundeen Arau Orokorren Lege Organikoaren 131.1 eta 58. artikuluetan finkatutako gastuen gehieneko mugak gorde dira.

Hauteskunde prozesu honi ezargarria zaion legedia honako hau da:

- Martxoaren 27ko 1/1987 Legea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietako hauteskunderi buruzkoa (BNHL).
- Hauteskundeen Arau Orokorrei buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa (HAOLO) eta hori aldarazten duen martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoa.
- Arabako diputatu nagusiaren 49/2015 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Arabako Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituena.
- Bizkaiko diputatu nagusiaren 37/2015 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Bizkaiko lurralde historikoaren Batzar Nagusietako ahaldunetarako hauteskundeak deitzen dituena.
- 1/2015 Foru Dekretua, martxoaren 30ekoa, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeak deitzen dituena.
- Ogasun eta Herri Administrazioen 572/2015 Agindua, apirilaren 1ekoa, 2015eko maiatzaren 24ko udal-hauteskundeetarako hauteskunde jardueren kontzeptuan sortutako gastuetarako diru-laguntzen kopuruak finkatzen dituena.
- 2012ko abuztuaren 30eko Agindua, Ekonomia eta Ogasun sailburuarena, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeek ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako kopuruak gaurkotzeari buruzkoa.
- 1907/1995 Errege Dekretua, azaroaren 24koa, talde politikoei ematen zaizkien urteko Estatuko diru-laguntzen eta hauteskunde gastuen izapidea arautzen duena.
- 18/2015 Foru Dekretua, martxoaren 31ko Diputatuen Kontseiluarena, Arabako Batzar Nagusietarako azken hauteskundeetan ordezkariak eskuratu zuten eta 2015eko Batzar Nagusietarako hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-talderi hauteskunde gastuetarako aurrerakinak ematen dizkiena.
- 44/2015 Foru Dekretua, abuztuaren 4ko Diputatuen Kontseiluarena, hauteskunde gastuengatik diru-laguntza eta aurrerakinen araubidea ezartzen duena, 2015eko maiatzaren 24ko Arabako Biltzar Nagusietarako hauteskundeetan eskuratutako emaitzen arabera.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 14ko 52/2015 Foru Dekretua, hauteskundeetarako diru-laguntzen emakida arautzen duena eta 1/1987 Legearen 11. artikulua indarrez, datorren maiatzaren 24an egingo diren Bizkaiko Batzar Nagusietarako hauteskundeetara aurkeztuko diren alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-talderi dagokiena.
- Ekainaren 19ko 4787/2015 Foru Agindua, Lehendakari Saileko foru diputatuarena, 2015eko maiatzaren 24an egindako Bizkaiko lurralde historikoaren Batzar Nagusietarako



hauteskundeetan lehiatu diren alderdi politiko eta koalizioek hauteskunde osteko aurrerakinak eskatzeari buruzkoa.

- Foru Administrazio eta Funtzio Publikoaren Saileko foru diputatuaren apirilaren 20ko Foru Agindua, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hauteskundeetan lehiatu diren alderdi politiko, federazio edo koalizioei diru-laguntzen aurrerakinak emateari buruzkoa.
- 2015eko irailaren 4ko Foru Agindua, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko foru diputatuarena, 2015eko maiatzaren 24an egindako Gipuzkoako lurralde historikoaren Batzar Nagusietarako hauteskundeetan lehiatu diren alderdi politiko eta koalizioek diru-laguntzen aurrerakinak eskatzeari buruzkoa.

Aurrekoaren guztiaren arabera, 2015eko maiatzaren 24ko lurralde historikoen Batzar Nagusietarako hauteskundeetan kandidaturak aurkeztu eta ordezkaritza eskuratu duten alderdi politiko eta hauteskunde-koalizioek egindako gastuak egiaztatzeko honako txosten hau jaulki dugu; hona hemen gastuak:

ALDERDI, FEDERAZIO EDO KOALIZIO POLITIKOA	SIGLAK
Eusko Alderdi Jeltzalea	EAJ-PNV
Euskal Herria BILDU	EH BILDU
Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra (PSOE).....	PSE-EE (PSOE)
Alderdi Popularra	PP
Podemos	PODEMOS
Ciudadanos Partido de la Ciudadanía	C's
Irabazi (Ezker Anitza-Izquierda Unida/EQUO/Alternativa Republicana)	IRABAZI



I. ONDORIOAK

I.1 LANAREN ZABALARI MUGAK

Hona hemen lanak izan dituen mugaketak:

- Udal hauteskunderen eta alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa egitea ez dagokio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Kontuen Epaitegiari baizik; hori dela eta, Batzar Nagusietarako hauteskunde hauei dagozkien gastuak alderdien kontabilitatean barne hartu izana ez da txosten honetan egiaztatu, gastuaren legezko mugak gainditu arazi litzaketenak.
- HKEEK ez du aztertu aurkeztutako kontabilitateez beste edota dagozkien Hauteskunde batzorde probintzialesi jakinarazitako hauteskunde-kontu korronteez beste erregistratutako ordainketa eta kobrantzen balizko izatea.

I.2 LEGERIA BETETZEA

2015eko maiatzaren 24ko Batzar Nagusietako hauteskundeetara aurkeztutako alderdi politikoei, federazioak eta koalizioak zuzentasunez bete dute indarreko legeria hauteskunde-gastu eta finantzaketa gaietan; halaber, ez dituzte gastuetarako finkatutako mugak gainditu eta HKEEK fiskalizatzeko hauteskunde-kontabilitatea Legeak agindutako epearen barruan aurkeztu dute.

I.3 DIRU-LAGUNTZA PROPOSAMENA

Hauteskunde gastuen diru-laguntza lurralde historiko bakoitzaren aurrekontuen kargura egiten da, Batzar Nagusietarako Hauteskunderen Legearen 11. artikuluari jarraiki. Diru-laguntza ez da inola ere justifikatutako gastuak baino handiagoa izango, eta hauek ere ezingo dute gastuen gehieneko muga gainditu. Horren arabera, 2015eko urriaren 30ean, alderdi, federazio eta koalizio bakoitzak eskuratzeko duen diru-laguntza honako hau da:



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ARABAKO LH					Euroak
Hautagaitza	Gehieneko diru-laguntza	diruz-lagungarriak diren gastuak	diru-laguntza ezargarria	Jasotako aurrerakinak	Zor saldoa
EAJ-PNV.....	157.902,53	136.883,37	136.883,37	44.876,96	92.006,41
EH BILDU	135.418,96	162.589,45	135.418,96	38.196,05	97.222,91
PSE-EE (PSOE)	61.387,26	61.387,27	61.387,27	30.697,06	30.690,21
PP	146.834,89	177.000,00	146.834,89	-	146.834,89
PODEMOS	98.270,27	17.700,59	17.700,59	-	17.700,59
C's (*)	13.004,62	-	-	-	-
IRABAZI	13.579,72	1.908,01	1.908,01	-	1.908,01
Guztira	626.398,25	555.468,69	500.133,09	113.770,07	386.363,02

(*) 2015eko irailaren 25ean, Ciudadanos alderdiak jakinarazi digu ez duela inongo hauteskunde-gasturik egin eta ez duela Batzar Nagusietarako hauteskundearen kontzeptuko diru-sarrerarik jaso.

BIZKAIKO LH					Euroak
Hautagaitza	Gehieneko diru-laguntza	diruz-lagungarriak diren gastuak	diru-laguntza ezargarria	Jasotako aurrerakinak	Zor saldoa
EAJ-PNV.....	361.043,63	319.870,06	319.870,06	80.554,29	239.315,77
EH BILDU	175.302,82	211.645,41	175.302,82	56.065,58	119.237,24
PSE-EE (PSOE)	112.928,23	112.918,20	112.918,20	41.990,14	70.928,06
PP	64.444,94	90.000,00	64.444,94	37.170,99	27.273,95
PODEMOS	108.566,32	42.506,16	42.506,16	-	42.506,16
Guztira	822.285,94	776.939,83	715.042,18	215.781,00	499.261,18

GIPUZKOAKO LH					Euroak
Hautagaitza	Gehieneko diru-laguntza	diruz-lagungarriak diren gastuak	diru-laguntza ezargarria	Jasotako aurrerakinak	Zor saldoa
EAJ-PNV.....	253.661,33	208.762,66	208.762,66	55.234,87	153.527,79
EH BILDU	237.676,45	273.171,34	237.676,45	89.515,24	148.161,21
PSE-EE (PSOE)	128.246,00	121.648,40	121.648,40	39.659,40	81.989,00
PP	16.315,36	35.000,00	16.315,36	-	16.315,36
PODEMOS	87.516,58	18.251,21	18.251,21	-	18.251,21
Guztira	723.415,72	656.833,61	602.654,08	184.409,51	418.244,57

Gehieneko diru-laguntzaren kalkulua III.1 atalean dago zehaztua; diruz lagungarri diren gastuak IV. atalean eta 2015eko urriaren 30era arte jasotako aurrerakinak txosten honetako III.3 atalean.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. GOMENDIOAK

- Martxoaren 27ko 1/1987 Legeak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietarako hauteskundeei buruzkoak, artikulua bakar bat eskaintzen dio hauteskunde-gastuen finantzaketa publikoari; bertan bakar-bakarrik zehazten da ordezkariak eskuratzen duten alderdi edo koalizioek jaso behar duten diru-laguntza.

Arauketa eskas honen ondorioz, beharrezkoa da Hauteskundearen Arau Orokorren Lege Organikora jotzea, ordezkari arau modura erabiliz eta hauteskunde hauek udal hauteskundeekin bateratuz, bere garaian Hauteskunde batzorde Nagusiak emandako interpretazioaren arabera.

Lurralde historikoen Batzar Nagusietarako hauteskundeei buruzko egungo Legea osatu egin beharko litzateke eta ondoko atal hauek barne hartu:

- Hauteskundeetan esku hartu duten talde politikoen hauteskunde-kontabilitateen fiskalizazioa berariaz agintzea Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari.
 - Alderdi eta koalizio parte hartzaileek egin ditzaketan hauteskunde-gastuei ezargariak zaizkien mugaketak.
 - Udal hauteskundeek eta Batzar Nagusiek komunean dituzten gastuak banatzeko baliabideak, beti batera gauzatzen diren prozesuak izanik.
 - Lurralde historikoen arabera bereizitako kontuak aurkezteko betekizunak eta kasua balitz, gastu komunak jasotzeko irizpideak.
- Hauteskundearen Arau Orokorren Lege Organikoak agintzen du ordainketa guztiak hauteskundeak egin eta hurrengo laurogeita hamar egunen buruan egin beharko direla, hau da, 2015eko abuztuaren 22a baino lehenago. Ondotik adierazitako alderdiak, federazioak eta koalizioak data hori baino beranduagoko ordainketak egin dituzte: PSE-EEK (PSOE) 30.756,63 euro eta EH BILDUK 1.883,64 euro.
 - EH BILDU federazioak hauteskundeetako kontu korrontetik 4.894,69 euroren ordainketa bat egin du, udal hauteskundeetako gastuei dagokiena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. DIRU-LAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGAKETA

III.1 HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ETA GEHIENEZKO DIRU-LAGUNTZA

Eskualdeko hauteskunde batzordeek batzarkideak izendatzeko jaulkitako akten arabera, alderdi politiko bakoitzak, lurralde historikoen arabera bereizita, eskuratu dituen emaitzak honako hauek izan dira:

Hautagaitza	ARABAKO LH		BIZKAIKO LH		GIPUZKOAKO LH	
	Botoak	Batzarkideak	Botoak	Batzarkideak	Botoak	Batzarkideak
EAJ-PNV	34.705	13	212.656	23	112.918	18
EH BILDU.....	32.716	11	106.575	11	103.140	17
PSE-EE (PSOE).....	17.991	5	70.361	7	59.080	9
PP.....	35.335	12	46.354	4	19.395	1
PODEMOS.....	23.393	8	82.107	6	43.126	6
C's	4.982	1	12.012	-	-	-
IRABAZI.....	5.953	1	14.773	-	8.422	-
BESTE BATZUK	2.961	-	11.287	-	6.389	-
Guztira	158.036	51	556.125	51	352.470	51

Boto hauetatik diru-laguntza jasotzeko eskubidea soilik ematen dute gutxienez ordezkarik bat eskuratu duten barrutietako botoek. Arau honi jarraiki, Batzar Nagusietan ordezkaririk eskuratu dituzten alderdi politikoei dagozkien ondoko boto hauek ez dira gogoan hartu ezgarriarik diren gehienezko diru-laguntzen kalkuluan:

Hautagaitza	ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
PSE-EE (PSOE).....	3.429	-	-
PP	1.302	6.306	9.005
C's.....	723	12.012	-
IRABAZI.....	629	14.773	8.422

Batzar Nagusietarako Hauteskundearen Legearen 11. artikulua eta dagokion foru araudia gogoan hartuta, alderdi politiko, federazio edo koalizio bakoitzak eskura dezakeen gehienezko diru-laguntza boto bakoitzeko 0,54 eurorena eta Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuratutako jarleku bakoitzeko finkatutako zenbatekoaren % 40 izango da, batzarkide bakoitzeko 26.761,89 euro egiten dituen, Ekonomia eta Ogasun Sailburuaren 2012ko abuztuaren 30eko Aginduaren arabera, eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetako buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako kopuruak eguneratzeari buruzkoa.

Euroak			
Hautagaitza	ARABAKO LH	BIZKAIKO LH	GIPUZKOAKO LH
EAJ-PNV	157.902,53	361.043,63	253.661,33
EH BILDU	135.418,96	175.302,82	237.676,45
PSE-EE (PSOE)	61.387,26	112.928,23	128.246,00
PP	146.834,89	64.444,94	16.315,36
PODEMOS	98.270,27	108.566,32	87.516,58
C's.....	13.004,62	-	-
IRABAZI	13.579,72	-	-
Guztira	626.398,25	822.285,94	723.415,72

III.2 GASTUEN GEHIENEZKO MUGA

Martxoaren 27ko 1/1987 Legeak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetako Batzar Nagusietako hauteskundeei buruzkoak (BNHL) ez du mugarik ezartzen Batzar Nagusietarako hauteskundeetan kandidaturak aurkezten dituzten alderdi politikoek egin behar dituzten gastuetarako.

Alabaina, Hauteskundearen Arau Orokorren Lege Organikoak 131. artikuluan agintzen du hauteskunde oroko muga bat duela eta baterako muga dagoela bi hauteskunde eta gehiago batera egokituz gero.

131.1 artikulua ezartzen duen mugaketari dagokionez, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren 2007ko urriaren 25eko erabakiak agintzen du hauteskunde-gastuen muga bakarra eta bateratua dela hiru lurraldeetarako, hauteskunde-prozesuak duen batasun izaeraren ondorioz.

131.2 artikulua baterako mugari dagokionez, Hauteskunde Batzorde Nagusiaren 2007ko martxoaren 22ko Jarraibideak agintzen du muga hau ez zaiela ezargarria lurralde historikoetako Batzar Nagusietako hauteskundeei, bereizi arautuak baitaude eta atal ezberdinek fiskalizatzen baitituzte.

Aurrekoaren ondorioz eta Hauteskundearen Arau Orokorren Lege Organikoaren 58.1 eta 193.2 artikuluetan agindutakoari jarraiki, alderdiek, federazioak eta koalizioak egin dezaketen gastua, Ogasun eta Herri-administrazioen Ministerioaren 572/2015 Aginduak eguneratutako zenbatekoen arabera, biztanleko 0,11 eurora dago mugatua, gehi 150.301,11 euroren kopuru finko bat lurraldeko barrutietatik erdietan baino gehiagotan aurkeztuz gero; horretarako, onartutako azken errolda hartzen da aintzat, 2014ko urtarrilaren lekoa, alegia. Honez gain, alderdi, federazio eta koalizio gehienezko muga horren % 20 baizik ez dezakete gastatu prentsa-irratietako publizitatean.

Ondoko taulan azalduko dugu hauteskunde hauei ezargarriak zaizkien mugak alderdi, federazio edo koalizio bakoitza aurkeztu den esparru geografikoaren arabera eta aurreko interpretazioari jarraiki:

Euroak			
Lurralde historikoa	Biztanleria	Gastu guztietarako muga	Prentsa-irratietarako muga
ARABA	321.932	185.713,63	37.142,73
BIZKAIA	1.151.905	277.010,66	55.402,13
GIPUZKOA.....	715.148	228.967,39	45.793,48
EAE GUZTIRA	2.188.985	691.691,68	138.338,34

Hona hemen alderdi, federazio eta hauteskunde-koalizio bakoitzak egindako gastuak guztira:

Euroak						
Hautagaitza	Muga	Arabako LH	Bizkaiko LH	Gipuzkoako LH	Guztira	Soberakina
EAJ-PNV	691.691,68	136.883,37	319.870,06	208.762,66	665.516,09	(26.175,59)
EH BILDU.....	691.691,68	162.878,89	216.540,10	273.171,34	652.590,33	(39.101,35)
PSE-EE (PSOE).....	691.691,68	61.387,27	112.918,20	121.648,40	295.953,87	(395.737,81)
PP.....	691.691,68	177.000,00	90.000,00	35.000,00	302.000,00	(389.691,68)
PODEMOS.....	691.691,68	17.700,59	42.506,16	18.251,21	78.457,96	(613.233,72)
C's	691.691,68	-	-	-	-	(691.691,68)
IRABAZI.....	691.691,68	1.908,01	2.949,11	1.215,06	6.072,18	(685.619,50)

Gastuetarako gehieneko muga alderdi politikoek, federazioak eta hauteskunde-koalizioak egindakoekin alderatuz gero, horietako batek ere ez duela guztizko muga hori gainditu ikus daiteke.

Prentsa-irratietarako ezarritako mugari dagokionez, ez inongo alderdi politikok, ez federazio, ez hauteskunde-koalizioek ez du muga gainditu.

III.3 JASOTAKO AURRERAKINAK

Alderdi politikoek, federazioak eta hauteskunde-koalizioak Batzar Nagusietarako aurreko hauteskundeetan jasotako diru-laguntzaren % 30eko aurrerakina eskatzeko eskubidea dute. Aurrerakin hori ematen da, aldeztatik eskatuta, deialdia egiten denetik aurrera kontatuta hogeita bederatzigarren egunetik aurrera, hau da, 2015eko apirilaren 29aren ostean.

Hauteskundeak egin ondoren hauteskundearen emaitzen arabera legokiekeen diru-laguntzaren % 90era arteko beste aurrerakin bat eska dezakete; horretarako, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu beharko diote; baita guztira jasotako diru-laguntzaren %10eko abala entregatu ere. Txosten hau idatzi dugun datan ez inongo alderdik ez koalizio politikok ez du aurrerakin hori eskuratu.

Alderdiei zein koalizioei 2015eko urriaren 30era arte emandako aurrerakinak aldundi bakoitzak emandako informazioaren arabera honako hauek izan dira:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ARABAKO FORU ALDUNDIA	Euroak
Alderdi politikoa	Aurrerakina
EAJ-PNV	44.876,96
EH BILDU	38.196,05
PSE-EE (PSOE)	30.697,06
PP	-
PODEMOS	-
C's	-
IRABAZI	-
GUZTIRA	113.770,07

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	Euroak
Alderdi politikoa	Aurrerakina
EAJ-PNV	80.554,29
EH BILDU	56.065,58
PSE-EE (PSOE)	41.990,14
PP	37.170,99
PODEMOS	-
C's	-
IRABAZI	-
GUZTIRA	215.781,00

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	Euroak
Alderdi politikoa	Aurrerakina
EAJ-PNV	55.234,87
EH BILDU	89.515,24
PSE-EE (PSOE)	39.659,40
PP	-
PODEMOS	-
C's	-
IRABAZI	-
GUZTIRA	184.409,51



IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK

Ondotik, Epaitegi honek berrikusi dituen alderdi, federazio edo koalizio bakoitzari dagozkion kontuak aurkeztuko ditugu. Sarreraren artean, aldundiek emandako lehenengo aurrerakina baizik ez da barne hartzen, izan ere, bigarrena ordaintzeko kontabilitatea aurkeztu behar baita Epaitegi honen aurrean.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegian kontuen aurkezpen datak eta honenbestez, alderdi, federazio edo koalizio politiko bakoitzaren kontabilitatean barne hartutako eragiketei dagozkienak, honako hauek dira:

ALDERDI, FEDERAZIO EDO KOALIZIO POLITIKOA	DATA
Eusko Alderdi Jeltzalea	22/09/2015
Euskal Herria BILDU -ARABA	11/09/2015
Euskal Herria BILDU -BIZKAIA	11/09/2015
Euskal Herria BILDU -GIPUZKOA	11/09/2015
Euskadiko Alderdi Sozialista – Euskadiko Ezkerra (PSOE) - ARABA.....	24/09/2015
Euskadiko Alderdi Sozialista - Euskadiko Ezkerra (PSOE) - BIZKAIA	03/09/2015
Euskadiko Alderdi Sozialista - Euskadiko Ezkerra (PSOE) - GIPUZKOA.....	18/09/2015
Alderdi Popularra - ARABA.....	24/09/2015
Alderdi Popularra - BIZKAIA.....	24/09/2015
Alderdi Popularra - GIPUZKOA	24/09/2015
Podemos - ARABA	09/09/2015
Podemos - BIZKAIA	09/09/2015
Podemos – GIPUZKOA	09/09/2015
Ciudadanos Partido de la ciudadanía.....	25/09/2015
Irabazi (Ezker Anitza-Izquierda Unida/EQUO/Alternativa Republicana).....	24/09/2015

IV.1 EUSKO ALDERDI JELTZALEA

EAJ/PNV alderdiak hiru lurralde historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan.

Kontabilitatea modu bateratuan aurkezten da, gerora lurralde bakoitzari dagokiona egozten zaiolarik.

		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta orriak	133.671,12	Jasotako diru-laguntzak	180.666,12
Gutuneria eta frankeoa.....	83.287,62	Alderdiaren ekarpena	490.000,00
Publizitatea prentsa-irratian	124.856,68		
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	280.650,53		
Alokairuak	4.880,70		
Finantza gastuak.....	0,10		
Bestelako gastuak	38.169,34		
GASTUAK GUZTIRA	665.516,09	SARRERAK GUZTIRA	670.666,12
Diruzaintza	5.150,03	Hartzekodunak	-
GUZTIRA	670.666,12	GUZTIRA	670.666,12



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Alderdiak lurralde historikoen arabera egin du gastu banaketa eta horretarako, lurralde bakoitzari zegozkion gastu propioak egotzi dizkio eta guztiei zegozkien datuak, berriz, kasu batzuetan hautesle-kopuruaren arabera banatu ditu eta beste batzuetan, komunikazio-estrategien arabera:

	Euroak
Lurralde historikoa	Zenbatekoa
ARABA.....	136.883,37
BIZKAIA	319.870,06
GIPUZKOA	208.762,66
GUZTIRA	665.516,09

IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU

Federazioak hiru lurralde historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan eta lurralde bakoitzeko kontabilitate bereizia aurkeztu du.

ARABAKO LH				Euroak
GASTUAK		SARRERAK		
Gutun-azal eta orriak.....	50.887,12	Jasotako diru-laguntzak.....		38.196,05
Publizitatea prentsa-irratian	9.236,45	Alderdiaren ekarpena		150.000,00
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	36.978,91	Sarrera finantzarioak.....		9,30
Alokairuak	3.004,52			
Finantza gastuak.....	16,36			
Bestelako gastuak.....	62.466,09			
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	162.589,45	SARRERAK GUZTIRA		188.205,35
Gastu ez subentzionagarriak.....	289,44			
GASTUAK GUZTIRA	162.878,895	ARRERAK GUZTIRA		188.205,35
Diruzaintza	25.326,46	Hartzekodunak		-
GUZTIRA	188.205,35	GUZTIRA		188.205,35

Hauteskunde-gastuetatik 289,44 euroren zenbatekoa egin duten 4 faktura kendu dira, Bilbon dauden hainbat aretoren argindarraren hornidurari dagozkienak; izan ere, ez da berariaz adierazi hauteskundeekin lotutako gastuei dagozkien.

Guztira 705,52 euro egin dituzten fakturak Hauteskundearen Arau Orokorraren Lege Organikoaren 125. artikulua agintzen duen 90 eguneko epea igaro ondoren ordaindu dira.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	25.940,95	Jasotako diru-laguntzak.....	56.065,58
Publizitatea prentsa-irratian	15.490,40	Alderdiaren ekarpena	170.000,00
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	91.628,83		
Alokairuak	8.570,19		
Finantza gastuak.....	12,00		
Bestelako gastuak.....	70.003,04		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	211.645,41	SARRERAK GUZTIRA	226.065,58
Gastu ez subentzionagarriak	4.894,69		
GASTUAK GUZTIRA	216.540,10	SARRERAK GUZTIRA	226.065,58
Diruzaintza	9.525,48	Hartzekodunak	-
GUZTIRA	226.065,58	GUZTIRA	226.065,58

Hauteskunde gastuetatik kendu da 4.894,69 euroren zenbatekoan egindako ordainketa BAT, gutun-azal eta boto-paperen gastu kontzeptuan jasotakoak eta udal hauteskundeetako gastuei dagozkienak.

Guztira 1.178,12 euro egin dituzten fakturak Hauteskundearen Arau Orokorraren Lege Organikoaren 125. artikulua agintzen duen 90 eguneko epea igaro ondoren ordaindu dira.

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	50.215,00	Jasotako diru-laguntzak.....	89.515,24
Publizitatea prentsa-irratian	22.592,55	Alderdiaren ekarpena	161.685,65
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	59.369,73		
Alokairuak	9.136,00		
Langileria-gastuak.....	4.154,80		
Finantza gastuak.....	10,50		
Bestelako gastuak.....	127.692,76		
GASTUAK GUZTIRA	273.171,34	SARRERAK GUZTIRA	251.200,89
Diruzaintza	(21.970,45)	Hartzekodunak	-
GUZTIRA	251.200,89	GUZTIRA	251.200,89



IV.3 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)

PSE-EE(PSOE) alderdia hiru lurralde historikoetan aurkeztu da, hauteskunde-barruti guztietan eta lurralde bakoitzeko kontabilitate berezia aurkeztu du.

ARABAKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	378,73	Jasotako diru-laguntzak.....	30.697,06
Publizitatea prentsa-irratian	12.277,45	Alderdiaren ekarpena	30.690,21
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	41.163,29		
Alokairuak	245,00		
Garraioa eta desplazamendu gastuak	1.418,00		
Bestelako gastuak.....	5.904,80		
GASTUAK GUZTIRA	61.387,27	SARRERAK GUZTIRA	61.387,27

Guztira 30.756,63 euro egin dituzten fakturak Hauteskundearen Arau Orokorraren Lege Organikoaren 125. artikulua agintzen duen 90 eguneko epea igaro ondoren ordaindu dira.

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	20.380,01	Jasotako diru-laguntzak.....	41.990,14
Publizitatea prentsa-irratian	22.583,64	Alderdiaren ekarpena	70.928,06
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	39.264,83		
Alokairuak	2.904,00		
Garraioa eta desplazamendu gastuak	286,00		
Bestelako gastuak.....	27.499,72		
GASTUAK GUZTIRA	112.918,20	SARRERAK GUZTIRA	112.918,20

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	4.840,00	Jasotako diru-laguntzak.....	39.659,40
Publizitatea prentsa-irratian	16.590,02	Alderdiaren ekarpena	81.989,00
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	48.713,22		
Alokairuak	4.101,30		
Bestelako gastuak.....	47.403,86		
GASTUAK GUZTIRA	121.648,40	SARRERAK GUZTIRA	121.648,40



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.4 ALDERDI POPULARRA

Alderdi Popularra hiru lurralde historikoetan aurkeztu da, hauteskunde-barruti guztietan eta Lurralde bakoitzeko kontabilitate bereizia aurkeztu du.

ARABAKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	15.509,79	Alderdiaren ekarpena	177.000,00
Publizitatea prentsa-irratian	31.090,81		
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	49.431,81		
Alokairuak	6.001,60		
Langileria-gastuak.....	22.386,56		
Garraioa eta desplazamendu gastuak	2.552,00		
Bestelako gastuak.....	50.027,43		
GASTUAK GUZTIRA	177.000,00	SARRERAK GUZTIRA	177.000,00

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	4.054,42	Jasotako diru-laguntzak	37.170,99
Publizitatea prentsa-irratian	41.697,65	Alderdiaren ekarpena	52.829,01
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	25.357,99		
Alokairuak	779,51		
Bestelako gastuak.....	18.110,43		
GASTUAK GUZTIRA	90.000,00	SARRERAK GUZTIRA	90.000,00

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	353,32	Alderdiaren ekarpena	35.000,00
Publizitatea prentsa-irratian	7.622,67		
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	14.458,27		
Finantza gastuak.....	41,55		
Bestelako gastuak.....	12.524,19		
GASTUAK GUZTIRA	35.000,00	SARRERAK GUZTIRA	35.000,00



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.5 PODEMOS

PODEMOS alderdiak hiru lurralde historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan eta lurralde bakoitzerako kontabilitate berezia aurkeztu du.

ARABAKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	945,47	Alderdiaren ekarpena	282,31
Publizitatea prentsa-irratian	174,21	Norbanakoen ekarpenak (*).....	9.852,58
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	6.942,77		
Alokairuak	5.206,05		
Finantza gastuak.....	73,29		
Garraioa eta desplazamendu gastuak	58,95		
Bestelako gastuak	4.299,85		
GASTUAK GUZTIRA	17.700,59	SARRERAK GUZTIRA	10.134,89
Diruzaintza	(7.565,70)	Hartzekodunak	-
GUZTIRA	10.134,89	GUZTIRA	10.134,89

(*) Mikro-maileguak.

BIZKAIKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	4.303,73	Alderdiaren ekarpena	1.025,69
Publizitatea prentsa-irratian	640,51	Norbanakoen ekarpenak (*).....	47.144,80
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	10.541,82		
Alokairuak	5.506,84		
Langileria-gastuak.....	9.673,97		
Garraioa eta desplazamendu gastuak	216,71		
Finantza gastuak.....	224,84		
Bestelako gastuak	11.397,74		
GASTUAK GUZTIRA	42.506,16	SARRERAK GUZTIRA	48.170,49
Diruzaintza	5.664,33	Hartzekodunak	-
GUZTIRA	48.170,49	GUZTIRA	48.170,49

(*) Mikro-maileguak.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GIPUZKOAKO LH		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	2.112,44	Alderdiaren ekarpena	630,46
Publizitatea prentsa-irratian	389,24	Norbanakoen ekarpenak (*).....	19.552,62
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	7.933,77		
Alokairuak	2.951,93		
Garraioa eta desplazamendu gastuak	319,23		
Finantza gastuak.....	130,87		
Bestelako gastuak.....	4.413,73		
GASTUAK GUZTIRA	18.251,21	SARRERAK GUZTIRA	20.183,08
Diruzaintza	1.931,87	Hartzekodunak	-
GUZTIRA	20.183,08	GUZTIRA	20.183,08

(*) Mikro-maileguak.

IV.6 IRABAZI

IRABAZI alderdiak hiru lurralde historikoetan aurkeztu du hautagaitza, hauteskunde-barruti guztietan; ordea, Arabako lurralde historikoan soilik eskuratu du ordezkari-tza.

Aurkeztutako kontabilitatea hiru lurralde historikoen multzoari dagokio:

		Euroak	
GASTUAK		SARRERAK	
Gutun-azal eta boto-paperak.....	388,62	Alderdiaren ekarpena	4.947,34
Publizitatea prentsa-irratian	2.425,31	Norbanakoen ekarpenak.....	1.523,00
Bestelako publizitatea eta propaganda.....	1.661,89		
Garraioa eta bestelako desplazamenduak	627,69		
Bestelako gastuak.....	968,67		
GASTUAK GUZTIRA	6.072,18	SARRERAK GUZTIRA	6.470,34
Gastu ez subentzionarioak.....	287,25		
GASTUAK GUZTIRA	6.359,43	SARRERAK GUZTIRA	6.470,34
Egotzi gabeko beste gastu batzuk.....	110,91		
GUZTIRA	6.470,34	GUZTIRA	6.470,34

Alderdiak lurralde historikoaren arabera gastuen banaketa egiteko lurralde bakoitzari gastuaren jatorriaren arabera egotzi dio gastua eta gastu komunitararako lurralde bakoitzari heren bat egotzi dio:

			Euroak
Lurralde historikoa	Gastuak guztira	Diruz ez lagungarriak	Diruz lagungarriak
ARABA	2.003,76	(95,75)	1.908,01
BIZKAIA	3.044,86	(95,75)	2.949,11
GIPUZKOA.....	1.310,81	(95,75)	1.215,06
GUZTIRA	6.359,43	(287,25)	6.072,18



ABREVIATURAS

- TVCP/HKEE Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
- LEJG Ley 1/1987, de 27 de marzo, de Elecciones para las Juntas Generales de los Territorios Históricos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.
- LOREG Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General.





INTRODUCCIÓN

El TVCP/HKEE ha revisado la contabilidad de ingresos y gastos de las candidaturas que obtuvieron escaño en las últimas elecciones a las Juntas Generales de los Territorios Históricos de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa celebradas el 24 de mayo de 2015.

La fiscalización, de acuerdo con la normativa vigente, ha consistido en la verificación de los siguientes extremos:

1. La contabilidad se ha presentado dentro del plazo previsto y de acuerdo con los principios establecidos en los artículos 121.2 y 133.1 de la LOREG.
